

Usurbilgo Udala

## 2018KO EKAINAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Gartzia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko ekainaren 26an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.


Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

#### \* 2018/04/24KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2018ko apirilaren 24ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

#### \* 2018/05/10EKO EZOHIKO BILKURA.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, 2018ko maiatzaren 10eko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018KO MAIATZAREN 21ETIK EKAINAREN 15ERA (2018/0529-2018/0688).**

Alkatetzak 2018ko maiatzaren 21etik ekainaren 15era bitartean (2018/0529–2018/0688) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- ALKATETZAKO 2018/0595 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

2018/0595 dekretuaren berri eman da eta zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **4.- EUDEL ETA HAEEREKIN BATERA, ADMINISTRAZIO-IZAPIDEEN ESKULIBURUA EGITEKO ATXIKITZE KONPROMEZUA HARTZEA.**

Alaitz Aizpuruak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Antolakuntza Batzordean aipatu zuten bezala, denbora asko daramatela dio espedienteen programa martxan jarri nahian. Horrekin lotuta eman beharreko lehenengo pausoa dela dio izapideen eskuliburua osatzea. Bertan, udaletxean egiten diren izapide guztiak katalogatu eta horien prozedurak zein diren definitzen dira.

IVAPek antolatzen duela dio ikastaroa, formakuntza edo laguntza, azken finean, eta interesgarria iruditzen zaiela adierazi du.


IVAPetik konpromiso bat eskatzen dute teknikoen eta politikoen aldetik eta udaletxe bakoitzetik hiru ordezkari joatea eskatzen dute. Udal honetatik idazkaria, kontu-hartzailea, kontratazio teknikaria eta Alaitz bera joaten direla azaldu du.

Hilean behingo zazpi saio direla esan du eta taldea lau udaletzek osatzen dutela, Ibarra, Lazkao, Ormaiztegi eta Usurbil. Beste bi saio norberak bere udaletxean egitekoak izango direla gaineratu du.

Ikastaroaren helburua izapideen eskuliburua osatzea dela esan du.

Eskuliburu honek gerora askotarako balioko duela esan du, adibidez, arreta zerbitzurako, administrazio elektronikorako, webgunerako.

Amaitzeko, hitzarmen honek konpromiso guzti hau jasotzen duela adierazi du.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak galdetu du ea eskuliburu hau aipatu dituen herri horietarako bakarrik izango den.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio IVAPek ikastaro hau herrialdeka antolatzen duela eta Gipuzkoako taldean aipatu dituen lau herriak daudela. Aurretik beste hainbat herri ikastaro hau egina dutela gaineratu du. Izapideen eskuliburua udaletxe bakoitzak berea egiten duela eta ez dagoela eskuliburu estandarizatu bat zehaztu du.

Josune Urkolak esan du batzordean ulertu zuela ja herri batzuk barruan sartuta zeudela.

Idazkariak argibideak eman ditu esanez Alaitzek esan duen bezala formazio hau joan deneko urte dezentetan egin dela, ja 67 herri direla izapideen eskuliburua osatu dutenak, eta aurten Gipuzkoatik lau joan direla, baina Bizkaian eta Araban ere badaudela beste herri batzuk.

Lege marko berdina izanda ere, udal bakoitzak bere funtzionamendua daukala dio idazkariak eta ondorioz izapideak ere ez direla berdinak.


Aurreko egunean erroldako izapideak txukuntzen aritu zirela dio eta egia dela erroldako kasuan izapide gehienak komunak zirela, baina adibidez hirigintzan edo kulturaren ezberdinak izan daitezke. Horregatik, herri bakoitzari eskatzen zaio bere gidaliburua osatzea. Baina taldea osatzearen helburua da lanak elkarbanatzea eta elkar laguntzea.

Alkateak adierazi du esandakotik ondorioztatzen dela oinarri ezinbestekoa dela aurrera begira egin nahi direnetarako, batez ere espedienteen kudeaketarako eta horrek dakarren guztirako.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.21/2018-0277

Administrazio izapideen eskuliburua udalen prozedura administratiboen gaineko oinarritzko informazioa txukun eta modu sistematikoan jasotzen duen dokumentua da: izapideen esanahia, nor eskatzen, entregatu behar den dokumentazioa, nola bideratu daitekeen, dauzkan betekizun ekonomikoak, izapidetzeko epea, dagokion lege esparrua eta, hala badagokio, prozedura aurrera eramateko behar diren dokumentuen ereduak jasotzen dituen eskuliburua.



Usurbilgo Udala

Administrazio izapideen Eskuliburuaren zeregina da prozedurak errazten eta arrazionalizatzen eta prozedura horiek gestionatzeko administrazio elektronikoa erabiltzen laguntzea. Halaber, eskuliburuaren helburuak dira:

- Erakundeen jakintza dokumentatzea eta erregistratzea; betiere, bermatuta informazioa erakundearen esku egotea, ez bakarrik erakundea osatzen duten pertsonen esku. Hori, erakundeari eta herritarrei eskaintzeko eta, era horretan, prestakuntza eta informazio gastuak gutxitzeko.
- Lan egiteko moduak araupetzen eta normalizatzen laguntzea, eta eskuliburua bera lanerako metodo bihurtzea, erakundea eraginkorragoa izan dadin. Udalen gestioa argia izan dadin laguntzea.
- Erakundearen kalitatearen kultura eta etengabeko hobekuntza sartzea. Ematen diren pausoak banan-banan aipatzen eta berrikusten direnez, hobekuntzak eta erantzukizunak identifikatu eta neurtu daitezke, eta akatsa edo hutsunea bilatzeko prozesua sinpletzen da, gero zuzentzeko.
- Herritarrei arreta integrala emateko zerbitzua antolatzen hastea.
- Herritarrentzako zerbitzuen kalitatea hobetzea, eraginkorragoa izatea.
- Erakundeko kideen partaidetza eta talde lana sustatzea.

Gauzak horrela, EUDEL eta HAEEK prestakuntza eta laguntza plan bat programatzea erabaki dute, jomugatzat hartuta udal bakoitzeko izapideak berrikusi, arrazionalizatu eta errazteko prozedurak garatzea, eta, azken buruan, prozedura horiek dokumentatzea.

Usurbilgo Udalak aipatu lan horiek egiteko beharra ikusita, interesa du EUDEL eta HAEEK diseinatu duten prestakuntza eta laguntza-planean parte hartzeko.

Guzti hau ikusirik, Antolakuntza Batzordeak 2018ko ekainaren 18an egingo den bilkuran, gehiengoz (aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre eta Alaitz Aizpurua Labaka; abstentzioa: Josune Urkola Larrarte) luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

## ERABAKIA

**LEHENENGOA:** EUDEL eta HAEEKin prestakuntza eta laguntza programan parte hartzeko izapideen eskuliburua egiteko, atxikitze protokoloa onartzea.

**BIGARRENA:** Alaitz Aizpurua Labaka proiektuaren arduradun politiko bezala eta Garazi Etxeberria San Miguel (udal Idazkaria), Karmele Lizaso Ubera (udal Kontuhartzailea) eta Olatz De Miguel Arnaiz (Kontratazio eta Pertsonal teknikaria), arduradun tekniko gisa izendatzea.

**HIRUGARRENA:** Prestakuntza eta Laguntza Programan parte hartzeko atxikitze protokola sinatzea, eta alkatea ahalmentzea sinadura egiteko.



Usurbilgo Udala

LAUGARRENA: Prestakuntza eta laguntza Programarako hitzartutako 500,00 €ko matrikula ordaintzeko agindua ematea Kontu-hartzaitzari.

LAUGARRENA: erabaki honen berri EUDEL eta HAEERI, lantalderako izendatutako kideei eta Kontu-hartzaitzari Sailari ematea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **5.- USURBILGO UDALAREN 2017 EKITALDIKO KONTU OROKORRA BEHIN BETIRAKO ONARTZEA.**


Alaitz Aizpuruak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

Kontuen Batzorde Berezia maiatzaren 14ean egin zela dio eta bertan 2017ko Kontu Orokorrari buruzko informazioa eta txostenaren berri eman zutela. Ondoren, 2018ko maiatzaren 25ean argitaratu eta hamabost eguneko epean jendaurrean egon zela gaineratu du. Erreklamaziorik ez denez aurkeztu, gaur hona ekartzen dutela dio behin betiko onespina emateko.

Josune Urkolak esan du aipatutako batzordea egin zutenean 2016ko auditoria ere aurkeztu zela eta auditoreak aldeko iritzia ematen zuela baina akats batekin. Hori horrela, akats horiek aurrekontuetan zer eragin zuten jakiteko txosten tekniko bat eskatu zutela, baina txostenik ez dutela jaso esan du. Ondorioz, aldeko botoa ezin dutela eman azaldu du.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio batzorde horretan puntu bat 2016ko auditoria zela eta bestea 2017ko Kontu Orokorra. Gaur hemen bigarren puntuarekin ari direla azpimarratu du.

Kontu-hartzaileak Josune Urkolari adierazi dio emailez erantzun ziola eta bertan komentatzen zuela eskatu zen informazioa justu batzordean bertan azaldu zuena zela. Josuneren eskaeraren aurrean, guztia aktan jaso zuela adierazi du.



Usurbilgo Udala

2016ko auditoreen txostena ez zela bozkatzera eraman baizik eta berri ematera eta ondorioak garbi geratu zirela gaineratu du eta zeintzuk dauden zuzenduta eta zeintzuk zuzentzeko bidean.

Amaitzeko esan du gauza diferenteak direla.

Josune Urkolak adierazi du gauza diferenteak badirela baina bata bestearekin lotuta daudela. Bestalde, aktan jasotzen direla dio baina ez dela txosten bat.

Kontu-hartzaileak dio azalpenak emanda daudela eta argitu ziola legearen arabera zein kasutan exijitu daitekeen txostena.

Bestalde, garbi utzi nahi duela dio edukian, eskatutakoa, esandakoa eta esateko dagoen guztia idatziz jaso dutela.

Josune Urkolak galdetu dio akta hau irakurrita ea uste al duen atera daitekeen ondorio bat ea horrek zer eragin izan duen aurrekontuetan. Berak ez daukala horretarako gaitasunik dio.

Kontu-hartzaileak aipatu du aurreikusten dela 2017ko likidazioan aterako direnak ere.

Josune Urkolak galdetu du ea 2017ko auditoria egiteko eskaera egina dagoen.

Kontu-hartzaileak erantzun dio momentu honetan egiten ari direla. Etapa diferenteak daudela dio eta itxiera egina dagoenean, behin betiko likidazioak eskatu dituztela aipatu du.

Josune Urkolak galdetu du ea prozedura horrela izaten den, hau da, ekitaldia erabat itxi eta gero egiten den auditoria.

Kontu-hartzaileak erantzun dio baietz, behin betiko listadoekin egiten dela. Hala ere, ekitaldia itxi aurretik ere auditoreekin harremanetan jartzen direla dio ahal dena zuzentzeko edo sortu daitezkeen zalantzak argitzeko.

Urtero moduan, auditoria dagoenean batzorde batetara eramango dela zehaztu du.

Alaitz Aizpuruak zehaztu du auditoreen txostenean bertan jartzen dituela ondorioak. Txosten hori osorik batzordera eraman zela eta txosten horren azalpenak eman zirela gaineratu du, baita ondorioak ere, zuzendu beharrekoekin batera.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Kontuen Batzorde Bereziak Udalbatzarrera bideratu duen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak arautzen duen eran, Kontuen Batzorde Bereziak maiatzaren 14ean eman zuen 2017ko Kontu Orokorrari buruzko txostena (aldeko bozkak: Alaitz Aizpurua, Xabier Arregi eta Jone Urdanpilleta; abstentzioa: Josune Urkola). Kontu Orokorra, aipatutako txostenarekin, jendaurrean azaldu da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018ko maiatzaren 25ean argitaratua izan denetik hasita 15 egunetan. Epe honetan ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Hau guztia dela eta, Korporazioaren Osoko Bilkuraren onespenerako jartzen da, onetsi ahal izan dadin, beti ere uztailaren 31<sup>a</sup> baino lehen.

Beraz, Kontuen Batzorde Bereziaren proposamena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## **ERABAKIA**

- 1.-Usurbilgo Udalaren 2017 ekitaldiko Kontu Orokorra behin betirako onartzea.
- 2.-Behin betiko izaeraz onartutako Kontu Orokorraren Espedientea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea, dagozkien azterketak egiteko.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.


Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, gehiengoz onartu da.

## **6.- UDALAK HILERRI BERRIAN ESKAINITAKO HILOBIEN GAINKO ESKUBIDEAK ESLEITZEA (10. LOTEA).**

Jone Urdanpilletak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

Batzordean diktaminatuta datorrela eta oraingo honetan 10. lotea dela adierazi du.



Usurbilgo Udala

Hiru eskaera egon direla eta guztira 6 nitxo eskatzen direla zehaztu du.

Nahiz eta zehazki puntu honi buruzkoa ez den alkateak aipatu du hilerri zaharrak hilerri erabilpena galdu duela, erabat hustuta dagoela eta onespen guztiak jaso dituela ja beste zerbait izateko.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2018-0067

### Aurrekariak

Udalbatza Plenoak 2018ko otsailaren 27an egindako ohiko bilkuran, bestek beste, hilerri berriko hilobien gaineko eskubideak (10. lotea) emakida administratiboaren bidez esleitzeko betebeharreko Baldintza Juridiko Ekonomiko eta Administratibo Bereziak onartzea, lizitaziorako espedientea irekitzea eta eskabideak aurkezteko deialdia egitea erabaki zuen.

Deialdiaren iragarkia 2018ko martxoaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2018ko martxoaren 25eko euskal prentsan argitaratu zen hogeita hamar eguneko epea eman zelarik eskabideak aurkezteko.

Deialdi-epean, honako eskabideak aurkeztu ziren:

Erreg.	Data	Izen abizenak	Hilobi kopurua
1173	2018-04-03	BEATRIZ GORRITI ZULOAGA	2 nitxo
1189	2018-04-05	GREGORIO ELVIRA HERNANDEZ	Nitxo 1
1532	2018-05-07	KARMELO, JOSE IGNACIO, ANA MARIA ETA TOMAS MANTEROLA ELEIZEGI	3 nitxo

Eskatzaile denak lizitazioan parte hartzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu dute, beraz, ez da inor baztertu.

Bestetik, 10. Lote honetan hauek dira emakidan eskaintzen diren hilobiak:

- Sahatsa kalea, 5 eskuina (hilobi 1)
- Sahatsa kalea, 8 eskuina (hilobi 1)
- Makala kalea, 2 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 4 (6 hilobiko panteoi osoa)

Esleipenak, panteoien kokapen ordena eta sarrera ordena jarraituz egingo dira.





Usurbilgo Udala

## Araudi aplikagarria

- Hilerrri Berriaren Erregimen eta Funtzionamendua arautzen duen Arautegi Nagusia.
- Hilerrri berriko hilobien gaineko eskubideak esleitzeko bete beharreko Baldintza Juridiko Ekonomiko eta Administratibo Bereziak. Jardunbide hau arautuko dutenak.
- Azaroaren 3ko 33/2003 Patrimonioaren Legea (93. artikulua eta jarraipenekoak).
- Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretua.
- Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 114tik 137rainoko atalak, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- Izaera osagarritz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, *Zuzenbide Pribatukoak izango dira indarrekoak.*
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia.

Beraz, guzti hori ikusirik, Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak, 2018ko ekainaren 07an egindako bileran, aho batez, Jone Urdanpilleta, Joxe Mari Arregi, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENENGO:** Udalak hilerrri berrian eskainitako hilobien gaineko eskubideak azalean jasotako eran esleitzea, hau da:

- Sahatsa kalea, 8 eskuina (hilobi 1) GREGORIO ELVIRA HERNANDEZ-i.
- Makala kalea, 2 eskuinean hiru hilobi (1, 2 eta 3) KARMELO, JOSE IGNACIO, ANA MARIA eta TOMAS MANTEROLA ELEIZEGI-ri.
- Makala kalea, 2 ezkerrean bi hilobi (1 eta 2) BEATRIZ GORRITI ZULOAGA-ri.

**BIGARREN:** Esleipena gauzatzeko, jarraian idatzitako Hitzarmen Administratiboaren eredia onartzea eta esleipendunarekin sinatu beharreko Hitzarmena prestatzeko agintzea.

**HIRUGARREN:** Alkateari, Udalaren izenean Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.



Usurbilgo Udala

**LAUGARREN:** Hitzarmena sinatu hala, esleipendunak ezarritako behin behineko fidantza bueltatzea.

**BOSTGARREN:** Erabaki honen berri esleipendunari, udal lantaldeko arduradunari, lurperatzaileari eta kontu-hartzaitzari ematea.

**SEIGARREN:** Esleipendunari, eguna eta ordua jartzea Hitzarmena sinatzera etor dadin.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **7.- ZUMARTE MUSIKA ESKOLA BIRGAITU ETA HANDITZEKO OBRA KONTRATUAREN ESLEIPENA.**

Alkateak adierazi du Hirigintza batzordetik diktaminatuta datorren puntua dela. Gogorarazi du maiatzean egindako Udalbatza plenoan eskaintza onena zuena Construcciones Moyua zela erabaki zela. Enpresa honek aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztuta eta zerbitzu teknikoek egindako azterketen ondoren, pleno honetara obraren esleipena dakartela esan du.

Gaineratu du obra honek badituela hainbat arlo berezi eta horietarako enpresa espezializatuak azpikontratatuak direla.

Jarraian, irizpenaren puntuak zerrendatu ditu.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Espediente zkia: ID.05/2017-0483

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2018ko martxoaren 5ean egindako ezohiko bilkuran onartu zen Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua esleitzeko prozedura irekia. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal Kontratatzaile Profilean 2018ko martxoaren 8an iragarkia argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epearen barruan honako enpresa hau aurkeztu da: CONSTRUCCIONES MOYUA, SL.



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalbatza Plenoak 2018ko maiatzaren 10ean egindako ezohiko bilkuran CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresa eskaintza ekonomiko onena izendatu zuen eta enpresari errekerimendua egin zitzaion, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean oinarri administratiboetan zehazten diren agiriak aurkeztu zitzaion.

Epe barruan eskaturiko agiriak aurkeztu ditu. Udal arkitektoak ere aurkezturiko agirien inguruko txostena osatu du, eta bertan, zera zehaztu du:

B)

***“Construcciones Moyua enpresak azpikontratatzeko aurkeztutako enpresetatik, baldintzak betetzen dituztenak honako hauek dira: Telur Geotermia y Agua, S.A., Geinor, Ingeniería y Servicios Energéticos, S.L., Egoín, S.A., Gureak Berdea, S.L.U., Alimco, S.L. eta Levantina de cubiertas y fachadas, S.L. Gainontzekoek ez dituzte eskatutako baldintzak betetzen, aurkeztutako dokumentazioaren arabera.”***

Hortaz, Kontratazio Mahaiak honako erabaki proposamen hau egiten dio Kontratazio Organoari:

**LEHENA:** CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresari esleitzea Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua, prozedura ireki bidez.

**BIGARRENA:** 1.981.219,02 euroko gastua (%21eko BEZ barne) baimentzea eta gastu hau 1-6000-622-334-00-01 kontu-sailaren kontura (A/579-2017) finantzatzea.


**HIRUGARRENA:** Erabaki hau CONSTRUCCIONES MOYUA, SL.-ri jakinaraztea, eta 2018ko ekainaren 28an Udalera kontratua sinatzera etortzeko dei egitea.

**LAUGARRENA:** Kontratuaren formalizazioa udaleko Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri Hirigintza eta Kontuhartzailletza sailei ematea.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2018ko ekainaren 14an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jose Mari Iribar, Carlos Perez eta Fermin Orue Echevarriaren aldeko botoekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA



Usurbilgo Udala

**LEHENA:** CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresari esleitzea Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua, prozedura ireki bidez.

**BIGARRENA:** 1.981.219,02 euroko gastua (%21eko BEZ barne) baimentzea eta gastu hau 1-6000-622-334-00-01 kontu-sailaren kontura (A/579-2017) finantzatzea.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau CONSTRUCCIONES MOYUA, SL.-ri jakinaraztea, eta 2018ko ekainaren 28an Udalera kontratua sinatzera etortzeko dei egitea.

**LAUGARRENA:** Kontratuaren formalizazioa udaleko Kontratatzailearen Profileen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri Hirigintza eta Kontuhartzaitza sailei ematea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **8.- GALDERA-ESKAERAK.**


Mirari Azurmendik eskaera eta galdera bana dituela adierazi du.

Hasteko, Oiardoko obra dela-eta, nahiz eta Hirigintza batzordean hitz egin zen, zehaztasunak eskatu ditu, atzerapenari eta epeei buruz.

Galderari dagokionean, obra finantzatzeko Foru Aldundiarekin diru-laguntza bat adostu zela eta horren egoera zertan den galdetu du.

Alkateak erantzun dio bere garaian obra esleitzeko deialdi ireki bat egin zela eta bertara ez zela enpresarik aurkeztu. Ondorioz, deialdia hutsik geratu zela zehaztu du.

Egoera hori izanik, enpresa batzuekin harremanetan jarri zirela esan du jakiteko hauek nola ikusten zuten arkitektoek egindako kostu estimazioa, etab. Jaso zuten erantzuna izan zela dio proiektua oro har ondo ikusten zela, epeak ere ondo ikusten zirela, baina kostu estimazioa justu zegoela, eta era berean, Kontratuen Lege berriaren etorrerarekin ere proiektu uholde handi bat izan zutela.



Usurbilgo Udala

Jasotako erantzunen aurrean, Hirigintza sailean eta Kontratazio sailean baloratu zela dio proiektuari eta kostu estimazioari buelta bat eman behar zitzaiola eta horixe egin dela esan du. Proiektu berri honetan kostu estimazioa handiagoa dela zehaztu du. Pentsatzen dutena da baldintza berri hauetan enpresak aurkeztuko direla eta obrak exekutatzeko moduan izango direla.

Hasiera batean obrak uztailean hasi eta abenduaren 31n amaitzea aurreikusten zutela azaldu du, baina deialdi berria orain eginda Kontratazio sailetik jakinarazi dutela dio irailean obrak hasteko moduan izango direla. Hiru hilabeteko atzerapena kontutan hartuta, obrak martxoan amaituko liratekeela zehaztu du.


Obra hau Foru Aldundian aurkeztu zutenean, ez zutela obra hau 2018an egiteko planik aurkeztu, deialdia plurianuala izanik 2019an hasi eta 2020an amaitzeko aurkeztu zutela. Foru Aldundian 160 eskaera jaso zirela eta Usurbilgo Udalarenak hirugarren puntuazio altuena jaso zuela, beraz, oso ondo baloratutako proposamena izan zela azpimarratu du. Hala ere, ez dakite zergatik baina ebazpenean udal honen egutegia aldatu egin omen zuten eta zioten obra 2018an egin behar zela. Horrek behartu dituztela dio aurreikusi ez zituzten epeak eta planifikazioa martxan jartzera. Hori dela-eta, Hirigintza sailean oso itota ibili direla esan du.

Jarraian, obra honek erabiltzaileengan izango duen eraginari buruzko azalpenak eman ditu. Hasteko adierazi du 2017ko amaieran erabiltzaileei jakinarazi zitzaiela obra hau zela-eta, igerilekua ez zela erabilgarri izango uztailetik abendura bitartean, eta hori horrela, kaltea aurreikusiz erabiltzaileei dirutan konpentsazio bat egin zitzaiela zehaztu du. Baina orain gertatzen dena da, abonatu horiek bai uztailean bai abuztuan eta baita obra hasi bitartean ere igerilekua erabiltzeko aukera izango dutela. Aldi berean, 2018ko kuotari begira, urtarrila-otsaila-martxoan gutxienez, obrak irauten duen bitartean konpentsazio bat egingo zaiela zehaztu du.

Era berean, kirol eskaintza kudeatzen duen enpresarekin harremanetan daudela jakinarazi du kirol eskaintza egokitzeko.

Josune Urkolaren galderari erantzunez, arrazoia duela dio Foru Aldundiarekin sinatu zuten hitzarmenean aurreikusita zutela diru-laguntza bat jasotzea abenduaren 31ean bukatzearen truke. Foru Aldundiko kudeatzailearekin harremanetan daudela adierazi du, azaldu diola zer gertatu den lizitazio honekin eta honen erantzuna izan dela ulertzen duela hori gertatzea, gaineratuz badaudela herri batzuk alderantziz eskatu dutenak, 2019rako aurreikusitako dirua 2018an gastatu nahiko luketela. Usurbilgo Udalak atzeratzea eskatzen duela dio alkateak, kontua da obraren martxaren arabera eta fakturak aurkeztu ahala Foru Aldundiak Udalari dirua eman diezaikeela, baina hitzarmenean jasota dagoela azkenengo %20a ordainduko dela obra likidatutakoan. Hori horrela, hitz egindakoa dela dio %20a 2019an behin obra amaitutakoan emango diela.

Mirari Azurmendik galdetu du ea hitz egindakoaz gain, hitzarmenik sinatuko den.



Usurbilgo Udala

Alkateak erantzun dio berak hitz egin zuen teknikariak ez ziola aipatu hitzarmenik sinatzeko konturik.

Gaia aldatuz, alkateak aipatu du San Estebango ur-deposituko obrak amaitu direla eta egindako frogak emaitza onak eman dituztela. Ostegunean goizeko 9etan obrak bisitatzeko aukera izango dela esan du eta zinegotziak gonbidatu ditu.

Jone Urdanpilletak jakinarazi du Osasun Sailak bertatik ura hornitzeko baimena eman duela.

Santixabel jaiei dagokienez, alkateak jakinarazi du datorren ostegunean hasten direla ofizialki herriko jaiak eta bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu du.

**Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:37etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**